

## ***Euskonews & Media: ba doa aurrera!***

---

Inork ez zuen espero, hilabete batzuen buruan aldizkariak hain arrakasta handia lortuko zuenik. Baina egiaztapen biribila da, *Euskonews & Media* erreferentzia bizi bat bilakatu dela euskal zientzia eta kulturarako. Eta irekitako bide horri jarraiki, bigarren urtean sartu da aste-karia, berrikuntza interesgarriekin.

Eusko Ikaskuntzak, berriz ere aitzindarien izpiritu zabalari helduz, abian jarri zuen 1998ko irailaren lehen astean aldizkari elektronikoko berritzaile hau, eta Elkartearen helburu nagusiekin bat eginez, euskal kultura eta zientziaren dibulgazioari dimentsio berri bat eskaini zitzaion Eusko Ikaskuntzaren Mediatekatik. Elkartearen laurogeigarren urtemuga ospatzen ari zen une haietan eta bazkidegoa kutsatzen ari diren haize berriek eraginda agerkari desberdin bat atera behar zela iruditu zitzaigun. Horrela, zenbaki zero batzuk gauzatu ondoren, irailaren 8an lehen zenbakia argitaratu zen, Interneten.

Ordudanik, lerro hauek idazten ari naizenean urtebete eta erdi eman ondoren, 64 zenbaki publikatu dira, astero astero, eta bere orrialdeetatik –orrialde elektronikokoak– bostehun lan-kide baino gehiago pasatu dira, seguruenik Eusko Ikaskuntzak inoiz izan duen aldizkaririk



aktiboenetik. Izan ere, horixe da, ene ustez, *Euskonews & Media* astekaria ezagutarazi duen nolakotasuna, aktiboa izatea, horrek suposatzen duen guztiarekin.

Aktibotasunak lana adierazten du. Eta aktibo izateari kalitatea gehitu behar bazaio, lana biderkatu egiten da, alde guztietatik. *Euskonews & Media-k* apustu garbia egin zuen lehen egunetik kalitatearen alde eta horretan oinarrituta lerro interesgarri bati heldu zitzaion, euskal zientzia eta kulturak ere goi mailako kalitatearen koordinadetatik pasatu behar duelakoan baitago Eusko Ikaskuntza.

Aldizkariaren diseinuak zibernetan nolakotasuna ere izan zuen kontuan, agerkari berriak giza kolektibo desberdinak bildu behar baitzituen bere orrialdeetara, aldizkariaren beraren arrakasta lortuko bazen. Diseinu arin eta erraza, gazte eta helduentzako irekia, ez bakarrik lankidetzak eskaintzeko orduan, baizik eta euskarri elektronikoei erakutsi behar duten malgutasuna behar bezala aurkezteko ere. Garbi zegoen alderdi horrek bere biziko garrantzia zuela, irakurleak ez ezik baita idazleak ere erakarri behar baitziren. Berrikuntza teknologikoetara batera ohituta ez zeuden bi giza kolektibo inportanteak, hain zuzen. Iraultza berri baten hastapenetan geunden eta denok genekien zein nolako usadioa zen euskal gizartean Internet eta antzerako misterioetarako. Ezin genuen ahaztu, bestalde, aldizkariaren merkatu naturala euskal esparru geografikoan dagoenik.

*Euskonews & Media-k* aurre egin zion eragozpen horri eta lehen unetik ia bi mila harpidedun bereganatu zituen, astero euren e-postan aldizkaria doan jasotzen dutenak. Izan ere aldizkariaren beste meritu bat debaldekoa izatea da. Horrek, zer esanik ez, kostuekin oso zorrotzak aritzera behartzen gaitu, diru-gehiagikeriatan ez ibiltzeko. Harpidedunetz gain, saretik edukiaren bila ari diren beste internauta asko ere ditugu aldizkariaren irakurleak. Batz bestea, astero zazpi mila sarrera edukitzen ditu *Euskonews & Media-k* eta joera gorantz doa.

Zer da gehien irakurtzen dena? Batera zalantzarik gabe elkarrizketa da sarrera gehien biltzen dituenena. Horregatik, garrantzi handia ematen dio aldizkariaren argitalpen batzordeak arlo horri, zentzu osoz aukeratu behar baitira elkarrizketatuak, euskal zientzia eta kulturaren ikuspegi zabala eskaini ahal izateko. Eta alde horretatik, jakintzaren espektro zabaleko gizon emakumerik adierazgarrienetakoak azaldu dira aldizkariaren orrialdeetara, guztiengandik jarrerarik estimagarriena jaso dugularik.

Asteroko bospasei artikulugileen artean ere aniztasuna bilatu nahi izan da, eta gaiak oso desberdinak izan dira, gehiengo batek historiarekin zerikusia badu ere. Kopuru altu bat doktore tituludunak dira eta lankideen batz besteko adinari dagokionez hogeita hamar urtekoak ditugu. Gizonezkoek (%60) maizago aurkeztu dituzte euren lanak emakumeek baino.

*Euskonews & Media-k* garbi izan zuen lehen unetik, hizkuntzari dagokionez erabateko askatasuna eman behar zela lankideei. Hala ere, euskaraz sortutako lanek aukera izan dute bi hizkuntzatan argitaratuta izateko, itzulpena egin baita euskarak baino hiztun gehiago dituen besteren batera. Dena den, euskarak ez du oraindik, Eusko Ikaskuntzak espero zuen maiztasuna lortu eta %20 da gure hizkuntzan datozen artikuluen kopurua. Erronka irekita dago eta kopurua etorkizun hurbilean hazi egingo delakoan gaude.

Bitxia da aldizkariaren irakurleek duten beste joera garbi bat: irratia da sarrera ugari biltzen dituen beste atal bat. Astero Euskal Herriko zenbait irratitan Eusko Ikaskuntzak antolatzen dituen mahai inguru eta solasaldiak digitalizatu ondoren Internetetik zabaltzen dira mundu osora. Beraz, esaterako, irratien uhinen bidez Gasteiz inguruan bakarrik entzun ahal izan dena, sare telematikoari esker Txileko Santiagoko Eusko Etxeko bazkideek entzun dezakete, erraz asko.



Bigarren urtean sail berriak ireki ziren, eta asmatu egin zela esan daiteke. Adibidez, "ART-aretoa" izenekoak –euskal artisten lanak ezagutarazten dituenak– oso bisitatuak da, eta estatistikek ahalbidetzen diguten aukeraren bidez garbi dago horien arte-erreferentzia batzuk munduko hainbat ordenadoretan daudela, gure zerbitzaritik jaitsita. Beraz, euskal artista plastikoak ezagunagoak egiten laguntzen ari da *Euskonews & Media*.

Gorago esan dudan bezala, astekariaren kostuen gaineko kontrola zeharo zorrotza da, bere finantza baliabideak murriztak dira eta. Publizitatea sartzeari ekin zitzaion lehen unetik, baina hala eta guztiz ere –agerkari elektronikoetan, orohar, publizitateak oraingoz duen intzidentzia oso txikia denez gero – sar genitzakeen beste berrikuntza batzuk baztertu behar izan ditugu, denbora hobeen zain. Baina, dena den, eskertzekoa da, euren iragarkiak sartzera animatu direnen jarrera eta espero dugu publizitateak lagunduko duela astekariaren ekoizpenak dituen gastuen finantzazioan.

Jakina den bezala, hilean behin astekariak zenbaki monografiko bat ateratzen du. Denetariko gaiak jorratu dira orain arte eta fenomeno interesgarri bat sortu da monografiekin: Eusko Ikaskuntzarekin batera harremanik izan ez duten pertsona ugariarekin kontaktatzeko eta euren lankidetzara lortzeko balio izan dute. Monografiako gaien aditua den lagun bat izendatzen da koordinatzaile, eta horrek eginiko diseinuaren arabera dei egiten zaie berak proposaturiko balizko lankideei. Oso gai erakargarriak erabili dira eta horien garrantzia garbi azaltzen dute estatistikek, gora egiten baitute bisitarien sarrerek monografiak publikatzen direnean.

Zenbaki monografikoekin beste esperientzia berri bati heldu dio Eusko Ikaskuntzak. Hiru hilean behin, gutxi gora behera, mahai inguruak antolatzen dira, hain zuzen ere hileko gai monografikoak astekariaren orrialdeetara bildu dituen adituekin. Eta ekitaldi publiko batean, agerkari elektronikoan aztertutako gaiaren inguruko azalpen eta solasaldia burutzen da. Ekitaldi horiek *Euskonews & Media-ren Jardunaldiak* deitu ditugu. Aurrenekoa, *EAEko Estatutuaren 20. Urtemuga* zela eta, Donostiako Miramar Jauregian burutu zen, eta liburuxka

bat atera da bertan jasotako iritzi eta ideia guztiekin. Bigarreanean, *Arrantzaren egoera Euskal Herrian* aztertu zen Bilboko Probintzia Artxiboan.

Laburbilduz, *EuskoNews & Media* errealitate bizi bat da. Eta Eusko Ikaskuntza poztu egingen du, berriz ere asmatu duela egiaztatzeak. Gure astekari elektronikoari esker, euskal zientzia eta kulturak lagun ugari irabazi ditu, bai gure muga geografikoez barruan baita haraindian ere. Oraindik ez bazara gure irakurle horietakoa, jo ezazu [www.euskoNews.com](http://www.euskoNews.com) helbidera.

*Josemari Vélez de Mendizabal*